


Astekaria

BARREN elgoi

Gero eta gazteago



- SALEROSKETAK
- TRASPASOAK
- ALOKAIRUAK
- MAILEGU ETA DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- IKERLANAK EDO PERITAJEAK
- LUR-ONDASUNEN ADMINISTRAZIOA

GABILONDO
INMOBILIARI AGENTZIA

E. GABILONDO
A.P.I. J.M.AZPELETA

S. Frantzisko, 51-1 D Domingo Irala kalea
ELGOIBAR ☎ 74 44 67 BERGARA ☎ 76 57 85

ELGOIBARKO IRAKASKUNTZA ERTAINAK



LANBIDE ESKOLA ☎ 74 44 80



BATXILERGO INSTITUTUA ☎ 74 02 67

BATERATZE BIDEAN

EMANDAKO URRATSAK

- BARNE ARAUDI BERRI BAT
- HEZKUNTZ PROIEKTU BAT (egiten ari)
- EKINTZA OSAGARRIAK BATERA
- TUTORIA ETA ORIENTAZIO DEPARTAMENTU BERA
- GURASOEN ESKOLA: drogomenpeketasunari eta sexu heziketari buruzko ikastaroak, e.a....

DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

lanbide eskola

- 1 • REM I
- 2 • REM II
- 3 • **BATXILERGO BERRIAK I**
 - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - BATXILERGO TEKNOLOGIKOA
- 4 • L.H. 2.2. (automozioa)
• L.H. 2.3. (automozioa)
• B.A.G. 2
• B.T.I. 2
• M II Txapa eta pintura
• M III Enpresen administrazioa eta gestioa

batxilergo institutua

- **BBB (BUP) I**
- **BBB (BUP) II**
- **UBI (COU)**
 - A - Zientifiko teknologikoa**
 - B - Biosanitarioa**
 - C - Gizarte Zientziak**
 - d - Humanistiko - Zientifikoa**

GIZA BALIABIDEAK



AURREMARIKULA EGITEKO EPEA: MAIATZAREN 4TIK 18 BITARTEAN

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegi

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edure Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso
Jasone Osoro

MAKETATZAILA:

Maitte Rementeria

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILAK:

Irati Agirreazaldegi, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Izaro Etxegibel, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maitte Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrique Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Ai, gure Lerun!

Hondorik gabeko zakuan eroritako hitz jariora litzateke Lerun futbol zelai zaharraren eta Mintxeta kirol esparru berriaren konparaketa gauzatzen hasiko banintz. Ez dira alderagarri. Bata estua, moldagaitza, zaharkitua, errekazulo umelean sartuta, euriteez lohituta, uholdeez behin eta berriz erauntsia, inguruko lantegien itzalez estalia. Bestea hedatsua, txukuna, eroso, mendi aldeko kolore biziez apaindua, ingurune paregabea kokatua. Bata infernua, bestea paradisia.

Halabaina, deabruaren eremu haietan gelditu zitzaigun futbolaren saltsa. Lerungo madarikazioak Mintxetako ontasunari eman dio bide. Amaitu dira enzerronak. Arerioen beldurra konfidantza bilakatu da. Atezainek porteria osteko iskanbila pairatu ordez baloi biltzaileen zurrumuru goxoa dute lagungarri. Epailleek lasaiago burutu dezakete beren lana, tribuna aldeko garraixiak Mintxetaren handitasunak irensten baititu, eta marrazainak, era berean, estutasun handirik gabe

dabiltza, alderik alde. Lerunen ez bezala, sorbalda gainean aterkiaren ikutua somatzeko beldurrik gabe.

Futbol zelai bat baino gehiago dirudi polikiroldegi bat. Joan dira lokatz arteko borrokaldiak. Entrenatzaileak ez du, jadanik, zelaia astintzeko mangera pasatzeko agindua eman beharrik. Berdegune artifizialak ez du sekula santan bere orlegitasuna galduren nahi adina ureztatuagatik.

Jokalariek behin betirako galdu dute ikusleen babes; zelaiaren urruntasunak erabat samurtu du partidu lehiatuen presioa eta atletismoko tartanak errekazuloko hezetasunak baino gehiago hozten du giroa.

Dudarik gabe, herriak etekin handiagoa atera ahal izango dio Mintxetari; guztioi probetxugarri izan dakiguke, baina ni neu mailarik nagusieneko futbolak zerbait irabazi duenentz zalantzaz nago. Aurki agiriko Maria Mañariko.

Gotzon Arrieta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Egia al da Futbitoko finalak Plaza Handian jokatu direla?

Futbitoko antolatzaileekin hitzegin dugu eta baietz erantzun digute. Kopa eta Ligako final maiatzak 28an larunbata arratsaldeko 5etatik aurrera izango direla.



KEXAK

Pare bat lagunek deitu digute Elgoibarko Gurutze Gorriaren euskararekiko arduragabetasuna salatzen. Badirudi etxeko diru bilketa egiten ari direla eta idatzizko eskaria erdara hutsez egin dute. "Egiten duten lana eskertzekoa bada ere, euskaldunokin errespetu piska bat edukitzea eskatzen diegu".



TXALOAK

Elgoibarko Ikastolan izan berri den haurren Xake Txapelketako antolatzaileek deitu digute antolatzen lagundu zieten guztiei eskerrak emateko. Zigor Esnaola eta Joseba Galarragari larunbat arratsaldea "galdu" eta laguntzen egoteagatik. Ricardo Astigarraga, Nati Garitano, Fernando Astigarraga, Mari Tere Ansola eta Mari Jose Ezenarrori umeentzako opariak emateagatik. Ikastolari, antolatzen laguntzeagatik.

ESKUTITZAK

Hitzetik Hortzera zentsuratuta

ETB-1; 1994.IV.21; osteguna, 22:35, direktoan: Bernardo Atxaga: Bertsolarien umekeria bat izan da!

. SALAKETA: "Gure adierazpen askatasun eskubideak zapaldu dizkigute"

. GERTAERAK:

1- Aurkezpena (Joxerrak): Tapia eta Leturiak lehiaketarako bertsoa kantatzen dute.

2- Betsolariak (gai librean): Gaur Egun albistegiaren "irudi gogorren" ondorioz, eta Hitzetik Hortzera saioa zuzenean dela aprobetxatuz, bertsolari gazteek, Unai Iturriaga gidari dela, Gaur Eguna "parodiatzen" dute: gazteen kezka askatasunez adieraziz (kirolak: intsumisoen jipoia Donostian. Presoak, desinformazioa... Den dena bertsotan, kritika gogorak eginez "goikoen" tximistak intuizten zituztela bertsotan kantatuz.

3- Saio erdian musikaz lagunduta: Atzeko paretean pintadak (horretarako prestatua baitzegoen pareta bertsolari batek bere iritzia jar zezan): KALEA GUREA DA, ERTZAINIK EZ! (adi! dirudienez, mezua, edukia alegia, ez zegoela aurrez prestatu! Gidoian, aitzitik bai!!!)

4- Lehiaketa parte hartzen dugu estudioko publikoak: Tapiak lehiaketarako bertsoa kantatzen du. Kantarien bertsoak aurkezten ditu Joxerrak. Kantatu ostean: iragarkiak.

5- Bernardo Atxagari elkarrizketa: bertsolari gazteen bapateko bertso-protesta haiei buruzko iritzia

eskatzen dio Joxerrak: "Gazte hauek ortodoxoak dira... Hori adinarekin sendatzen da..."

6- Joxerra urduritzen hasi: estudioko arduradunak papertxo bat albotik ematen dio (azkarragotzeko aginduz): ELKARRIZKETA LUZATU, LEHIAKETA, AGURRA.

7- Joxerrak "paperak galtzen ditu" (urduri jarri da): Barkatu, ..., hauuu, ..., zuzeneko gauzak dira..." edo esanez, Bernardori elkarrizketaren galdera bat bergaldetuz. (Bernardo harrituta. Publikoaren barnesumoak: "Joxerra kontrola galtzen! Hain txarra zenik ez genekien!").

8- Joxerrak bigarren "notattoa" jasotzen du albotik: ZUZENDARITZAREN AGINDUZ BIGARREN BERTSO SAIORIK EZ DAGO. ("Goikoe" bertsolari gazteei saioaren azken agurra galerazi nahi dietela somatu du Joxerrak): "Lehiaketaren irabazlea irakurtzen du Bernardok. Joxerrak: "Besterik gabe, Gabon!" (Amaierarako ordu erdi edo falta zelarik!)

. IRITZIA: Zentsuraren lekuko izan naiz lehendabizikoz zuzenean jaun-andreok. Harrigarria!!! Notatto famatuak, lehiaketako zestuan Joxerrak utzitakoak, gaztetxo batzuk kuxkuxean darabiltela, mesedez eskatuz jakan poltsikoratzen ditut. (Irakurri berri dudana George Orwellen "1984" eta Aldous Huxleyren "Mundu zoriontsu bat" liburuetan oinarritutako "Les cruilles de la utopia", katalan idazle baten liburuan irakurritakoak datozkit burura: gizarte informatizatua, askatasun kontrolatua, bioinjenerutzaz lortutako gizakumeak... Giza Eskubideak bortxatuak, Bernardo!

Iñaki Uribe eta Odria

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



Aste honetako erretratua bertan azaltzen den mutikoaren etxeko batek laga-takoa da. Laga digunak ez omen du izenik azaldu nahi eta bere eskaria errespetatu egin dugu.

Erretratuan azaltzen dena **Peli Uriguen** "Etxegiña" da. Erretratua 1947. urtean aterakoa omen da, eta gezurra badirudi ere, Pilar Ikastetxearen parean aterata dago. Nola izan zen?

Peli eskolara zihoan egunero bezala. Halako batean, eskolara iristear zegoela, arrain zoragarri bat ikusi zuen ibaian. Arrainak maisuaren esplikazioek baino estimazio gehiago zuenez, ibai ertzera urreratu eta harrapatzeko erabakia hartu zuen. Kañaberarik ez zuenez eskuz hartzeko intentua egin zuen eta bai lortu ere. 4,5 kiloko zarboa harrapatu zuen inguruan zeudenen harridurarako.

Eskuz harrapatzea debekatua zegoenez, erretratua ateratzeko kañabera bat inguratu behar izan zuen. Ondo orraztu eta itxuran preparatu zen, handik 47 urtera BARRENen irteteko.



DIA DAS LETRAS GALEGAS

..... **1994**

Maiatzak 7, 14, 15, 20, 21 eta 22



Kaixo elgoibartarrak!

Urte bete ondoren hemen gaude berriz ere Dia Das Letras Galegas ospatzeko prest. Aurten ere ahalik eta programa zabal eta erakar-garriena prestatzen saiatu gara zuen gozamenerako. Besterik gabe elgoibartar guztiak Galizia Etxeak antolatutako jai egun hauetan parte hartzerara animatu nahi zaituztegu.

Lehen Jaunartzea

Erljio sinismen krisiak jotako gizartean bizi garen arren, haurrek beti eduki izan duten ilusio eta benekotasun berberaz egiten dute gaur eguneko haurrek ere Lehen Jaunartzea. Izenak dioen bezala, kristautasunean hezitako neska mutil gazteek, bederatzi urterekin, lehen aldiz hartzen dute Jauna. Ospakizun handia izan ohi da; askorentzat erlijio kutsua galdu eta festa sozial bihurtu den ospakizuna, agian.

Gure herriko Eliza erakundeak gauzak argi dauzka Lehen Jaunartze zein ezkontza ospakizunek izan behar duten kutsuaz hitz egiterakoan. Benantzio parrokoak eta haurren Lehen Jaunartzearen prestakuntzaz arduratzen diren kristau ikasbideko irakasleen arduradun den Modesta Iriondok, hitz gutxitan azaltzen dute zein den Elizaren jarraia.

Elizaren irizpideak

"San Bartolome parrokiak igandero ospatzen du meza. Haurrak ere Eukaristia honetan parte hartzera gonbidatzen ditu elizak, bederatzi urterekin Lehen Jaunartzearekin gauzatzen dena". Elizaren iritziz, beraz, Lehen Jaunartzea igandeko meza edo Eukaristia bat da. Parrokiaren eginkizuna era berezian egiten laguntzea da.

Argi dago ezin daitekeela sakramentuan oinarritutako jaiaz hitz egin, ospaki-

zuna jai soziala izatera mugatzen denean. Guraso gazteen eta sinismen eskasekoen kasuetan Lehen Jaunartzea erlijio kutsurik gabe ospatzen da: jantzi garestiak, opari ikusgarriak, erreportaia grafiko konpletuenetariakoak... izaten dira nagusi, ospakizunaren zentzua bera ahaztuz.

Zentzu honetan, parrokoaren eta kristau ikasbideko arduradunen nahia ospakizun hauek ahalik eta era xumeenean eta hezigarrienean egin daitezela da. Adibidez, bazkariak etxean egitea eta opari apalagoak erregalatzeari gomendatzen du elizak.

"Bere burua kristautzat duenak", dio Benantzio parrokoak, "bide horretatik hezi beharko luke seme-alaba". Baina gai honetan, beste askotan bezala, kontrerasanak gertatzen dira. Gaur eguneko gizarte sekularizatuan beren burua kristau sentitzen ez duen guraso asko dago. Kontsekuente izanez gero, logikoena,



■ ■ Ilusio handia izaten dute haurrek

hauen seme-alabek Lehen Jaunartzea ez egitea litzateke, baina seme-alabei ilusioa egiten dienez, guraso askok onartu egiten dute jaunartzea egitea beren seme-alaben ilusioa betetzeagatik. Parrokoak komentatu digunez, horrelako kasuak gertatu ohi dira, herri eta hiri handietan indar handiagoz, gainera.

Kristau prestakuntza

Haurrak sei urterekin hasten dira kristau ikasbidean. Hiru urtez kristautasunean hezi eta gero, igandeko mezatan hasten dira parte hartzen. Partaidetza hau bederatzi urte betetzean, Lehen Jaunartzearekin hasten da. Jaunartzearekin batera, haurrek lehen penitentzia egiten dute. Prestakuntza honetaz bost monitore arduratzen dira. Bigarren mailako prestakuntza emateko zazpi monitore daude eta hirugarren mailakorako beste zortzi.

Haurren partaidetza Eukaristian, bederatzi urterekin hasten da, Lehen Jaunartzearekin, alegia.



Lehen Jaunartzerako. Aurten 90 bat hurrek egin du Lehen Jaunartzea.

Iragana eta oraina

Duela urte batzuetako Jaunartzeak eta gaur egungo Jaunartzeen artean alderik ote dagoen jakin nahian, Modestak, funtsean ezer gutxi aldatu dela uste du. Ustez gaur egungoa den handitasun hori, lehen ere berdin berdin gertatzen zela dio Modestak. Hori bai, aurten apalxeago ospatu omen dira Jaunartzeak; krisi ekonomikoa igarri egin da non-bait.

Euskaraz eta gaztelerez

Aurten maiatzeko lehen hiru igandetan, eta ez lautan lehen izaten zen bezala, izan dira Lehen Jaunartzeak. Hileko lehen igandean erdaldunek egin zuten, bigarren igandean, berriz, euskaldunek eta datorren igandean, hilaren 15ean, Maalako parrokioek egingo dute. Haur kopurua beherantz

doala igartzen da, Modestak dioenez. "Lehen normala izaten zen maiatzeko igande guztietan Jaunartzeak egotea, gaur egun hiru igandetan bakarrik egoten dira". Lehen tandan, 29 hurrek jaso dute Lehen Jaunartzea, bigarren tandan 45ek eta



■ ■ Opariak ez dira falta izaten Lehen Jaunartzeetan.

Maalakoak 13 izango dira, gutxi gora behera.

Orain arte horrela izan bada ere, bi urte barru, Jaunartzeak haur euskaldunek eta erdaldunek nahastuta egingo dituzte. Neurri honen elizak herrian bizi den errealitatera egokitu nahi du, izan ere, haur guztiak euskaldunak badira ere, guraso askok ez dakite euskaraz eta elizak edozein ospakizunetan kontutan hartu beharrekoak direla uste du.

**Bi urte barru,
haur
euskaldunek
eta
erdaldunek,
nahastuta
egingo dute
Jaunartzea.**

Habitoarekin bueltaka

Hasteko, habito hitza gaizki erabilia dagoela esan digu parrokoak. Lehen Jaunartzean neskatoek ez dituzte habitoz jutzen, tunika zuriz baizik. Sasoi batean "nobiaz" jutzen ziren, baina gehiegi-kerietan erortzeko arriskua zegoela ikusita, tunika zuria, denentzat berdina, ezarri zuten. Duela hogeita piku urte hartutako erabaki honek gaur arte iraun du eta aurreantzean ere horrela jarraitzeko asmoa du elizak.

Errenta aitorpenaren buruhaustea

Errenta aitorpena Haziendarekin egin beharreko likidazio edo finikitoa da. Lan errendimenduengatik, kapital inbentarioagatik, edota edozein enpresa edo merkatal ihardueragatik diru sarrerak izan dituzten pertsonen Haziendak urtean zehar diru kopuru bat kentzen die. Errenta aitorpenaren bidez Haziendarekin diru zuriketa egiten da; diru errententzia gehiegi izan bada errekuperatzeko eta gutxiegi izan bada ordaintzeko.

“Base inponiblea”ren arabera (diru sarrera guztien batuketa) kuota bat ordaindu behar izaten da. Baina badira zenbait gastu deduzible edo kengarriak direnak. Hala nola familiaren egoera, etxebizitza inbertsioak, bizi aseguruak,... eta azkenik urtean zehar Haziendari egindako ordainketak.

Nortzuk egin behar dute errenta aitorpena?. Bakarkako aitorpena, lan errentak edo etekinak 1.000.000 pezetatik gorakoak dituztenak. Eta aitorpen bateratuaren kasuan, lan errenta 1.200.000 ptatik gorakoa denean.

Aitorpena egiteko epea apirilean hasi zen eta ekainaren 25ean bukatzen da. Aitorpena arrunta edo mekanizatua izan daiteke, baina gaur egun mekanizatua erabiltzen da gehien; Haziendak dirua itzuli behar duen kasuetan batez ere, dirua 7 egunetan jasotzen baita. Aitorpen arruntarekin berriz, urte bukarrera arte ez da dirua jasotzen. Elgoibartarrok Eibarko Hazienda delegaziora joan behar dugu errenta mekanizatua egitera. Arrunta berriz, banketxe edo beste finantz erakunde baten bidez Haziendara bidaltzen da. Ordaintzea tokatuz gero, batean zein bestean, ekainaren 25a aurretik egin behar da. Nahi izanez gero 2 epetan ordaindu daiteke. %60a ekainaren

25a baino lehen eta gainontzeko %40a azaroaren 10 aurretik.

Errenta aitorpena egin ezean edo epez kanpo eginez gero honako kasu hauek gerta daitezke:

- Negatiboa edo itzultzeko eskubi-dearekin bada 15.000 edo 25.000 ptako isuna.

- Positiboa bada ordaintzea tokatzen dena gehi %12ko interesa tardantzagatik. Eta Haziendak erreklamatzeko bada, %50eko isuna gehi %12ko tardantzagatik interesa. Inspektoreak iruzur egiteko asmoa egon dela ikusiko balu isunak %50-%300ekoak izan daitezke.

Nire ikuspegitik, kontutan izan behar da aitorpen bateratua edo bakarkako egitea komeni den. Diru sarrerei dagokienean, senar-emazteak lan egiten dutenean eta diru sarrerak 5.000.000tik gorakoak direnean, bakarkako egitea hobe izaten da. Baina bietako batek bakarrik lan egiten duenean hobe izaten da modu bateratuan egitea. Dena den kasu bakoitzan banaka aztertu behar da.

Bestalde, sarritan lan errenta miloira ez iritsi arren, beharrezkoa ez bada ere, komenigarria izaten da aitorpena egitea; gehienetan dirua jasotzea tokatzen baita.



JOSE MARI OTAEGI
GOAR aholkularitzakoa

ASGI
taberna
Urasandi 1,2.zbk.
Tel: 74 28 38

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
Berezitasunak:
Bakilaua
Txerrikiak
Merkatu Plaza 33-34

Kide
ILEAPAINDEGIA
☎ 74 00 69
San Frantzisko, 19 1 esk.

Txiriboga
Taberna
GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24


Fotero
OKINDEGIA
OPILDEGIA
San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Kafetegia

DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Zuk zeuk egiten al duzu errenta aitorperna?



EUGENIO ANDONEGI
61 urte, pentsionista

Ni pentsionista naizenez, lau urte dia ez dotela egiten. Aurten hasi dia %75a daukagunoi deskontatzen. Egitekotan beste baten esku lagako naban.



ROSA HERRERO
67 urte, jubilatua

Neri familian egiten didate, anaia batek. Ez dakit ziur zein motatako aitorpena egiten dudan, mekanizatua uste dut, baina ni ez naiz arduratzen.



LAURA GARAI
33 urte, etxeoandrea

Normalki asesoria batekin itxen dogu. Senarrak lan itxen daban enpresan asesoria bat daukate eta ni ez naiz inoiz preokupatu.



JULIAN GORROÑO
45 urte, kontserjea

Guk etxean egiten dugu, emazteak beti, nik ez. Aitorpen bateratua egiten dugu. Zaila ez da, zaila izaten da kobratzea tokatzen zaizunean.



GREGORIO FERNANDEZ
57 urte, fundizioko langilea

Nik neuk ez dut inoiz egin errenta, beti aholkularitza batekin. Nik ez dut jakiten nondik heldu eta beraiek lan horretarako pretauta daudela iruditzen zait.



M. CONCEPCION ROSA MOLINA
25 urte, langabetua

Etxean aitag egiten du. Ni langabezian nagoenez ez dut aitorpenik egiten. Amak lanik ez duenez egiten familia osoa sartzten gara aitorpenean.

Generosia *Irakidenda*

Casa Salegui
1940 can Sortua

Lehenengo Jaunartzeak

- TARTA BEREZIAK
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

San Frantzisko, 49 behea. ☎ 74 28 75 ELGOIBAR

LANBROA

elgoibar

■ Galiza Etxekoen jaiak

Galiza Etxeak Galiziarren jaiak ospatuko ditu asteburu honetan eta datorren asteburuan zehar. Larunbat honetan, hilak 14, anaiarteko bazkaria izango dute eguerdiko 2etan. Ondoren Zelta estiloko Chaves tiraldia jokatu da. Parte hartzeko izena eman beharko da Galizia Etxera joanda edota 74 10 03ra deituta, 250 pezetako ordaina emanaz. Joku berezi honetan 2 tanda egongo dira tiraldi bakoitzeko, 14 metrotako distantzian jarritako gurutze formako egitura batean 8 arandela sartu beharko direlarik. Lehen eta bigarren sailkatuek garaikurra eta *Gabi* jatetxean afaria irabaziko dute eta hirugarrenak garaikurra eta txanpan botila. Igandean, goizeko 10etan ezkondu eta ezkongabeen arteko partidua jokatu da eta 3,30etan bideo emanaldia izango dute. Jaiak datozen 20, 21 eta 22ra arte luzatuko dira.

■ Errotatxok antolatutako Prebentzio Astea martxan

Errotatxok urtero antolatzen duen Prenbentzio Astea burutuko du hil honen 16tik 21era bitartean. Ekintza nagusia datorren 21ean, larunbata, Plaza Handian egingo den herriko 36 kolektiboren topaketa izango da. Prebentzio Astea zehar bi hitzaldi emango dira Kultur Etxean. Hilaren 17an, asteartean, Agustin Larrazabal psikiatrak "Diseinuko drogak eta 'ruta del bacalao'" gaiaren inguruan hitz egingo du. Ostegunean, berriz, hilak 19, Askagintzako Txus Congil-en eskutik, "Drogen legalizazioa, bai ala ez" izango da eztabaidagaia. Bi hitzaldiok arratsaldeko 7,30etan hasiko dira. Bestetik, Errotatxok eta Bilboko T4 elkarteak, HIESaren aurkako eta gaixoen aldeko batzorde hiritarrak, "Emakumea eta HIES" a izeneko ikastaroa antolatu dute hil honen bukaera alderako. Ikastaroak 8 ordutako iraupena izango du. Izena 74 23 60 telefonora deituta eman ahal izango da.



Gaztetxea bota zuteneko hirugarren urteurrena zela eta, hainbat ekintza burutu ziren joan den larunbatean Gazte Asanbladak antolatuta. Eguraldi txarrak azken orduko aldaketak egitera behartu zituzten antolatzaileak. Dena den, "gutziz positiboa" izan da Gazte Asanbladako kideek antolatutakoari buruz egindako balorazioa. Manifestazioan 100 bat lagun bildu ziren eta Ikastolako frontoian Kokoteraino, Ume Gaiztuak eta Anticuerpos taldeek emandako kontzertura 160 pertsona inguru urreratu ziren. Gazte Asanbladako kideek eskerrak eman nahi dizkiote Ikastolako arduradunari emandako laguntzagatik eta bestetik, Udalaren jarrera salatu nahi dute eskenatokia ez lagatzeagatik.



Begirale ikastaroa egin duten neska-mutilek jai bat antolatu zuten pasa den larunbatean herriko haurrentzat. Erdi Aroan kokatua, xake partida baten inguruko antzezlanaz. Ikastaroko neska-mutilak ziren fitxak: erregea, zaldia, dorrea... eta haurrek mugitu behar zituzten. Baina, fitxak indar gabe geratzen dira. Haurrek, sorgin baten laguntzaz, lau pista jarraitu behar dituzte, herensugea aurkitu arte, orduan berreskuratuko baitute galduriko indarra.

Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu. Hala ere, inguratu ziren umeek primeran pasa zuten, ikusle ezezik partehartzaile ere izan ziren eta.

Ikastola Sketch lehiaketan saritua



Hizkuntza eta teknologia berriak eskolako programetan integratu nahirik, joan den igandean, Bilboko Arriagan Euskadiko Kutzak antolatutako II. Sketch Lehiaketan Ikastolako 8. mailako talde batek parte hartu zuen, Jabier Larrañaga eta Sebas Larrañaga irakasleen eskutik, hirugarren saria lortuz, "Orduan ba!" izeneko bideo sketch batez. Bertan euskararen erabilera sustatu nahi da, Ikastolan ikasturte honetatik martxan jarri

duen "Euskaraz Bizi" programaren barruan. Parte hartu zuten aktore paregabeak ondoko hauek izan ziren: Ainhoa Aduriz, Lore Agirre-azaldegi, Letizia Astrai, Nerea Egaña, Igor Fernandez, Miren Galdona, Jon Gerrikabeitia, Vanessa Gonzalez, Zuhaitz Gurrutxaga, Jose Orbea, Ana Rodriguez, Irati Uri-guen eta Silvia Vazquez. Saria Kataluniara bidaiak izango da. Ondo pasa!



Txankakua Merkataria eta Zerbitzarien Elkarteak urteko bazkideen batzar orokorra burutu zuen joan den asteazkenean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bertan, Txankakuaren kanpainak, ACOGI-OPA proiektua, balantze ekonomikoa, zuzendaritzaren berrikuntza eta bestelako gaiak aztertu zituzten. Eguna, Txarriduna jabetxean egin zuten afari batekin amaitu zuten.

■ Garbiñe Del Hoyo Expo-consumon saritua

Diseinatzaile elgoibartar gazte hau, ospatu berri den Expoconsumo Ferian lehen saria jaso du, haurrentzako jantzi sailean. Garbiñek zazpi urtako lau ume jantzi zituen, gabardina, soineko, fraka eta bestelako arropaz. Erosotasuna eta kolorea dira bere diseinuen ezaugarri nagusiak. Orain hilabete pasatxo Garbiñek Alemanian ospatu zen feria batean ere aurreneko saria lortu zuen, kasu hartan lentzeria sailean. Zorionak!

■ AEK kanpadarako bonoak salgai

AEKk "AEK babestuz, euskara aurrera" lemapean ospatuko du aurtengo AEK kanpada hil honen 20an, 21ean eta 22an Dimako aireportu zaharrean. Hiru egun hauetan ospatuko den jai honetarako bonoak salgai daude Txuri-beltzen, Oiz-Mendin eta AEK euskaltegian 1500 pezetaren truke. Bonoek hiru egunetarako balio izango dute.

■ Ikastola, antzerki kultura bultzatzen

Eibarko Hezkuntza konplexuko "Naruzko Zezen" taldeak antolatuta, Deba Beheko Eskolarteko Antzerki Erakusketak ikasleen antzerki kultura handitzeko aukera ematen du. Elgoibarko Ikastolan hizkuntza programa indartzeko bide bezala hartuz, hainbat ikasle antzerki saio ezberdinetara joan dira ikusle gisa. Hil honen 9an "Nahikoa" izeneko antzezpina ikustera joan ziren 1. eta 2. mailako 100 ikasle. Hilaren 16an, erdi zikloko 176 ikasle errusiako txotxongiloak ikustera joango dira, eta 20an goi zikloko 200 ikaslek Mutrikuko beste ikasle batzuen antzezlana ikusi ahal izango dituzte. Edurne Lasaren eskutik ari den Ikastolako Antzerki Tailerrak hilaren 23an Eibarren antzeztuko du "Jolasten" izeneko lana.

Izaskun Arozena:

"El Salvadorren ez dago haurtzarorik"

Izaskun Arozenak ia zazpi hilabete egin ditu El Salvador-en. Askapena-rekin joan zen, bertako komunitateetan bizi zirenei laguntzera. Esperientzia erabat aberasgarria bizitzeko aukera izan du, Ertamerikako

herrialde horren egoera sozio-politikoaz azaldu digu. Izaskunek, beste gauza askoren artean, "entzuten" ikasi du eta guk ere horixe egin dugu. Hara, labor-labor jaso duguna.

- Nolatan El Salvadorera?

- Lana bukatu nuen, mementu hartan ez nakan ezer eta beti eduki dot gogua horrelako esperientzia bat bizitzeko. Hego eta Ertamerikak beti tiratu izan dit pila bat eta El Salvador mementu historiko oso inportantean zegoenez...

- 1992an amaitu zen gerra 12 urte eta gero.

- Bai. 70eko hamarkadan biztanlego osoaren %2ak bakarrik zuen lurren jabetza. Demaseko desoreka zegoen eta 1980an gerra hasi zen. Eskumak beti izugarritzko errepresioa ezarri izan du. Gerra garaian, FMLNaren aldeko biztanlego zibilak lurak birpoblatzeari ekin zion, inolako laguntzarik gabe. Noski, ejerzittoa toki guztietan sartzen hasi zen, baina poliki-poliki gerriak ere indarra hartu zuen. Azkenean, bi bandoak indar aldetik orekatsu mantentzen ziren. Ez zen irabazlerik aurrikusten, garai hartan Ellacuria erahil zuten, nazioarte mailan ikaragarritzko presioa zegoen... 1992an gerrari amaiera eman zitzaion.

- Pakearekin bat akordioak ere sinatu ziren, ez?



"Oinarrizko hiru eskubide eramango nizkieke: lana, hezkuntza eta osasuna"

- Bai. Alde batetik, bi bandoetako jendez osatutako polizia nazionala sortzea erabaki zen, bai eta ejerzittoa desmobilizatzea ere. Bestetik, jendeari kredituak emango zitzaizkion okupatutako lurak erosteko aukera izan zezaten. Eta, lehenengo aldiz, hauteskunde libreak ere konbokatuko ziren.

- Eta eskuina garaile.

- Frenteak ez du esperientzia politikorik eta karpaina ez zuen ondo bideratu. ARENA alderdiak, ordea, oso ondo prestatu zuen guztia. Baliabideak zituen eta nazioarteko zen-

bait interesen babesa ere bai. Gainera jendea beldur da eta ez da ohartzen etorkizunari begira aldaketa sozio-politiko bat eman behar dela. Fraudea ere egon zen, 200.000 pertsona geratu ziren boturik eman gabe.

- Komunitate batean bizi izan zara. Nola antolatzen dira?

- 150 familiek osatua, kooperatiba bezala funtzionatzen dute. Bizilagunek aukeraturiko direktiba bat daukate eta asanblean hartzen dituzte erabaki guztiak. Haurrak ere 10 urterekin helduak dira, etxerako

eskulana. Ez dute guk eza gutzen dugun haurtzarorik. Batez ere ganadu eta lurretik bizi dira. Gainontzean, ez dute ez argi ez eta ur korronterik ere. Dana dala, hasi da igertzen nazio arteko nolabaiteko laguntza.

- Euren kontuak entzungo dituen norbaiten beharra dute, ez?

- Bai, euren artean ez dira apenas ezer kontatzen; batek lau senitarteko galdu baditu, besteak bost galdu ditu. Denek sufritu dute asko. Gu, ordea, entzuteko prest egoten gara, eta gurekin betetzen dute behar hori. Gainera, mezulariak gara beraientzat. Euren egoera atzerrian azalduko duen norbaiten beharra dute, presio bat egon dadin eta gertatu dena gehiago jazo ez dadin.

- Siniskeriarik ere badi-tuzte.

- Bai, asko. Bada mito bat oso hedatua eta erabat sinisten dutena: Cieguenaga. Ba omen zen emakume oso eder bat. Senarra eta semea utzi zituen eta hil zenean izpiritu txar bihurtu zen. Orain, erreka eta laku guztietan azaltzen omen da eta gizonek, atzetik ikustean, emakume oso eder bat ikusten dute. Gero, aurpegira begiratzean, izugarri zatarra dela konturatzen dira. Jende askok esaten du ikusi duela.



Txiki BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 3. GEHIGARRIA



Ikastolatik Pilarrera eta handik Herri Eskolara. Zuhaitz eta landare ezberdinen argazkiak orman, eskeleto bat, saio hodiak eta matrazak mahai gainean... Ez da, ez, oso zaila nora joan ginen asmatzea. Neska-mutil guztiak, taldeka zein bakarka, gustura baino gusturago arituko dira esperimendu aldrebesak egiten: likidoak nahasten, hauts diferenteak gehitzen, kolore aldaketekin gozaten... Guzti horiek eta gehiago ere egiten dira laborategian. Esan zigutenez, 21 egun eman zuten kaxa batean sarturiko arraultze bati argia eta beroa emanaz, ernalduko zenaren esperantzarekin. Baina, ez zen txitatxorik jaio. Hurrengo baterako utzi beharko!

IRRI-MIRRIKA



Jakitunen eskutik

Eskolarteko jokoak

Elgoibarren, dagoeneko ia hogeit bat urte darrazkigu Eskolarteko Jokoetan aktiboki murgildurik eta gauzak asko aldatu direla esan behar. Alde batetik, gaur egun ia haur guztiek parte hartzen dute, haseran ez bezala, eta bestetik, jolastokiez ere hornituagoak gaude.

Oso positibotzat jotzen dut ekintza hau eta abantaila hauek ikusten dizkiot: lehendabizi, herriko haur guztiei, neska eta mutileri, kirol desberdinak ezagutu eta praktikatzeko aukera ematen dielako. Baita, ikastetxe ezberdinetako hurrek elkar ezagutzuz harreman berriak sortzen dituztelako ere. Azkenik, gaur egun zenbait kirolatan "profesionalki" ari diren gazte askok lehen urratsak joku eskolarretan eman dituztelako eta beste batzuen abiapuntu ere izan daitezkeelako.

Hiru kategoriatan aritzen dira: BENJAMINAK (3. eta 4. maila), ALEBINAK (5. eta 6. maila) eta INFANTILAK (7. eta 8. maila). Guztiak zoriondu nahi nituzke ekintza honetako izarrak direlako

eta ilusio handiz aritzen direlako, eta bereziki BENJAMINAK, nahiz eta hotz handia egin, fraka motzetan, kirolari profesionalak bezalaxe aritzeagatik. Bestalde, herriko hainbat gaztek, arbitro zein entrenadore gisa, egindako lan izugarri eta desinteresatua goraiatu nahi nuke. Baita, nola ez, animatze zein entrenatze lanetan aritzen diren gurasoen lana ere!

Hala ere, oraindik badugu zer eginik edo zer hobeturik, kanporaketa fasea, adibidez. Poliki-poliki, gutxika-gutxika eta borondate onez, lan handiak eta garrantzitsuak burutzen eta eraikitzen dira, noski.

Eskolarteko jokoen jarraipena ziurtaturik dago jadanik: ESKUBALOI eskola, MINTXETAKO futbol eskola, aurki izango dugun SASKI BALOI eskola, ATLETSIMO eskola, ESKUPELOTA eskola, TXIRRINDULARITZA, XAKEA, IGERIKETA eta abar. Lan bikaina denena! Garrantzitsua gure herriarentzat. Haur eta gazteek merezi dute eta goazen bultzatzera!



MARI KRUZ INTXAUSTI

Ze iritzi daukazu ...*jaunartzea*...ri buruz?



"Jaunartzea gauza polita da. Zure bizitzako momenturik politenak daude. Baina gero oparietan pentsatzen duzu."

IÑIGO OTERO FEIJOO. 9 urte



"Ondo dago zeren eta Jensen lagun askoz hobea zara eta ondo portatu behar zeralako"

RAUL FERNANDEZ. 7 urte



"Oso ongi iruditzen zait. Kristantamnean sartzen zara eta behin hori esin ondoren gizon txo bat sentitzen zara."

ASIER ETXANIZ. 12 urte



Iñigo Oñederra
14 urte

1. Mundu guztia pakean.
2. Gerrarik ez egotea, ondo bizitzea eta pobrezia gitxio egotia.
3. Ez naiz piropo zalea.
4. Majia izatea.
5. Tontia izatia.
6. Haundixa naizenian kalia botata egotiak.
7. Ohe azpian.
8. Leku guztietan sartuko nintzateke.

Galde debalde

- 1.- Zer nahi zenuke ikustea giltzaren zulotik?
- 2.- Eska iezazkiozu hiru desio Aladinoren lanparari.
- 3.- Piropo bat?
- 4.- Zer gustatzen zaizu neska/mutil batengan?
- 5.- Eta gutxien?
- 6.- Zerk beldurtzen zaitu?
- 7.- Non izkutatuko zenuke tesoro bat?
- 8.- Ikustezina bazina, zer?



Amets Izagirre
9 urte

1. Mutilak erropaz aldatzen.
2. Txaleta animalixekin eta diru asko, milioiak.
3. Zure begiak kanika urdin batzuk bezelakuak dia, zure ilea alfombra bat bezain suabea eta gorputza enbor bat bezain gogorra.
4. Rubixua, begi urdinak, altua eta guapua izatia.
5. Dana gustatzen jata.
6. Batzuetan etxian bakarrik nauala finbria jotzen dabeanian.
7. Kaja bat hartuko naban, armarixoan sartu, erropiak in tapau eta gainian telebisua ipiniko naban.
8. Izozki denda batera joango nintzake izozki mordo bat hartzera!

Zer da.....intsumisioa ?

NAIADA BERNAL 10 urte



"Mutilek ez dute nahi soldaduzkara joan. Baina gu zergatik joan behar gara eskolara? Ikastera, ezta? Ba beraientzat soldaduzkak zerbaiterako balioko du, ez?"

ERLANTZ MARTINEZ 11 urte



"Ondo iruditzen zait, zeren eta batzuek ez dute nahi eskuetan armarik edukitzea eta horretaz aparte bere familiarekin egotea nahi dute"

IBAI GADATE 10 urte



"Gazteek soldaduzkara joan nahi ez dutenean uhelga egiten dute. Eta hori ondo dago"

MIREN OTAL 9 urte



"Soldaduzkara ez nahi joatea. Orain modan dagoena."

ENERITZ CUEVAS 12 Urte



"Ni intsumisioaren alde nago, baina bakoitzaren iritzia ontzat hartzen dut, pertsona bakoitzak nahi duena egin dezakeelako"


MAITE URIARTE 10 urte



"Soldaduzkara edo Gurutze Gorrira edo beste gauza batzuetara ez joateari intsumisioa deitzen zaio eta askotan manifestazioa egiten dute horregatik."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?

.....
?



ANA OSORO
7 urte

"Andereñoa izatia asko gustatzen jata, etxean beti nabil jolasean. Muñeekin ibiltzen naiz, eurak ikasleak izaten diaz, eta eskolako liburuak errepasatzen ditud, tareak ondo dauden eta horrela..."

JOANA ASTIGARRAGA
8 urte


"Umiak eta ateratzen ditzun enfermera bat izango naiz, umiak zaintzeko asko gustatzen jataz eta. Lasai eta pozik biziko naiz, senarrakin eta seme-alabekin, eta baserri edo txalet bat eukiko dot, animalixekin. Hori dana osasunakin."



3. Asmakizunak:

- Lumaia ederra dut handia eta zorrotza moko, beti errepikatzen dut entzun eta ikasitakoa
Zer da?.....
- Bi mendien arteko tiro zaratatsua, sudurra ixteko moduko tiro usaintsua
Zer da?.....
- Kristal polita beti bustita, ugari neguan nahiago udan
Zer da?.....

4. Zenbat kubo falta dira blokea osatzeko ?



Erantzunak hurrengo astean aurkituko dituzu " Merkatu Txikia"ren orrialdean

Peio Alfaro

Udaltzaina



- **Zergatik udaltzain?**
- ▶ Langabezian nengoelako.
- **Poliziatzat al daukazu zure burua?**
- ▶ Ez, pertsona normaltzat daukat.
- **Ondo ikusita al zaudete udaltzainak? Errespeturik bai?**
- ▶ Ondo ikusita gaudela uste dut baina errespetua ez da guk nahi bestekoa.
- **Ertzainekin ondo konpontzen al zarete?**
- ▶ Batzuekin bai baina beste batzuekin larri-larri.
- **Jarri al dizute inoiz multaren bat?**
- ▶ Bai, eta gruak kotxea eraman ere bai. Eta ordaindu nuen, nahiz eta gutxi izan.
- **Elgoibarko zinegotziren bati jarri al diozu inoiz multarik?**
- ▶ Bai, baina ezin dizut esan nori.
- **Alkateari jarriko al zenioke?**
- ▶ Bai.
- **Zenbat multa barkatu dituzu?**
- ▶ Asko.
- **Pistolak ibiltzearen aldekoa ala kontrakoa?**
- ▶ Kontrakoa. Ez nuke inolaz ere pistola bat erabiliko.
- **“Kalea gurea da” idatzi berri du bertsolari gazte batek konforme?**
- ▶ Bai, kalea kalean ibiltzen denarentzat da, guztiona da.
- **Nork agintzen du Elgoibarren?**
- ▶ Alkateak.
- **Zeintzuk dira Elgoibarko on eta txarrak?**
- ▶ (Barreak) Ez dakit, galdera txarra egin didazu. Horrek posizionatzea eskatzen dit eta ezin dut.
- **Jendeari pixa non egin behar duen erakustea ere zuen lana al da?**
- ▶ Bai, elgoibartarren “konportamendu zuzenaren” zaintzaile gara eta komunak non dauden erakutsi behar diegu.
- **Bukatzeko, jarriko al diguzu nota elgoibartarroi?**
- ▶ 7,5.


IMANOL LARRAÑAGA

EUSKAL HERRIA

DOINUA: Antton eta Maria

Gaia jarri didate gaur Euskal Herria hainbeste maite dedan gure aberria bere egoera da zeharo gorria asun bihurtu zaigu lehen zena urria usteltzen sentitzen det Euskadi berria. (bis)

Gero ta gehio eiten da erdera hau mintza honekin bera doa Euskadin bizitza oindik lan egiteko denboraz gabiltza lantzen badegu gogoz guk bertsolaritza atera genezake sartu zaigun gaitza. (bis)



JAVIER ARRIOLA


B
E
R
R
I
T
S
O
T
A
I
N



Maiatzaren 3an hil zen VICENTE ARAKISTAIN IZAGIRREren ahaideok, ESKERRAK eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi, samin agurrak bidali eta une latz honetan lagun izan zaituztegun guztioi.

Prest dago Elgoibar-Maltzaga errepidea konpontzeko proiektua

Elgoibar-Eibar bidea egunero egiten dutenek badakite zein nolako egoera kaskarrean dagoen errepidea. Bide estua eta errebueltak oso itxiak, gehiegi. Guzti horiek konpondu asmoz, Gipuzkoako Diputazioko Errepide Sailak proiektu bat burutu du, Elgoibar-Maltzaga bitartean egingo dena. Printzipioz, 1994ko azaroa -abendua aldera hasi nahi da obrekin.



■ ■ Olaso parean hasi eta Maltzagara arteko errepidea konpondu nahi da.

Proiektua 1988 urtean egin zen, berez. Baina, obrei hasera emateak etengabe norabide bat istea suposatzen duenez, eta errepide horretan ibiltzen den ikaragarritzko trafikoa-ekin arazoak sortuko zirela kontuan izanik, bertan behera uztea erabaki zen. Garai hartan, baita ere, autopistaren irteera berri bat Eibarko Azitain auzoan kokatzea pentsatua zegoen. Horregatik, aipaturiko azken proiektu honi eman zitzaion lehentasuna.

Sei urte pasa direnean, eta Azitaingo peajea martxan dagoe-

nez, berriz ere heldu zaio Elgoibar-Maltzaga proiektuari. Hartara, bide-zati bat itxita badago ere, nahi duenak izango du aukerarik autopista erabiltzeko. Besteek, logikoki, pazientziaz hartu behar-ko dute bidaia, atasku bat baino gehiago suertatuko da eta segurue-nez.

Olaso kanposantu parean hasi eta Maltzagara arteko errepidea konpondu nahi da. Batetik, 1,5 mko zabalera izango duen bide-ertzak (arcén) egingo dira bi nora-

bideetan, errepidea bera ere zabalduko delarik. Orotara, bideak 10 metro inguruko zabalera izango ditu. Gaur egun justu-justu 7 metrokoa da. Errebueltak ere ez dira orain artekoak bezain itxiak izango, eta desnibelak gutxituko dira, ahal diren lauen bihurtuz.

Urtebeteko epea kalkulatu da obra guztia bukatu aurretik. Gastueri dagokionean, 400 bat milioi izango da, oso-osorik Diputazioaren esku geratzen delarik.

UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Ramon Mujika

▲ **ADINA:** 26 urte.

▲ **LANPOSTUA:** Kirol Teknikaria

▲ **FUNTZIOA:** Instalazioen eraikuntzak eta berrikuntzak proposatzea eta gainbegiratzea. Kluben beharrak aztertu eta subentzioak bideratzea. Ekintzak antolatzea eta Mintxetaren zuzendaritza eramatea. Azken batean, kirola elgoibartarrei hurbiltzea.

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1991tik.

▲ **LANAREN ALDE ONA:** Lana bera, gaur egun lana edukitzea suerte bat da.

Bestalde, orain arte egin ditudan proposamenak politikoengandik onartuak izan direla eta herritarrengan ere harrera ona izan dutela.

▲ **ALDE TXARRA:** Jendeak administrazio publikoarekiko duen jarrera txarra, kritika mailan beti gaude jendearen ahotan. Bestalde, lan publikoa izatean askotan ez da desberdintzen denbora librea eta lana bera; jendeak kalean ere hainbat gauza komentatzen dizkizulako eta zu ere, nahi eta nahiz ez, beti zaudelako kirol asuntuetaz arduratzen.

Altzola Dorretxea

- Pasa diren bi asteetan Dorretxearen historia azaldu dugunez, oraingo honetan arte aldetik aztertuko dugu.
- Dorretxeak ugariak izan ziren Euskal Herrian behe ertaroan. Interes militarra bazuten ere aro modernoarekin bat prestigio eta bereizketa soziala isladatuko duten jauretxe bilakatuko dira.
- Altzola Dorretxea oinplano karratuko eraikin dotorea da. Lau isuriko teilatuaz ongi babestutako lau fatxada gotor azaltzen ditu: Nafarroa Enparantzara bat, San Frantzisko iturrira beste bat, Azoka plazara hirugarrena eta ibaira azkena.
- Ormak arlagaitzezkoak diren arren, izkinak eta ate-leihoetako baoguneak kararritzko harlanduzkoak dira, bereziki baogune dintelduak nabarmenduz.
- Fatxada nagusiaren eta San Frantzisko iturrira ematen duen fatxadaren artean Altzolatarren harmarri harroa kokatzen da, honen azpian eguzki orratza egonik.
- Balkoiak, forjatuzko burdinaz eginak, jabaloiez hornituta daude. XIV. mendean orain baino balkoi eta leiho gutxiago izango zituen, bere izaera militarra gehiago isladatuz.
- Barne espazioa sotoak, hiru solairuk eta ganbarak osatzen dute.
- Fatxada nagusian dorretxerako sarrera atea (dobela haundiz osatutako erdi puntuko arku) eta bi leiho dinteldun daude. Lehenengo solairuan hiru balkoi daude, baogune dintelduz eratutak eta bigarren solairuan 3 baogune dinteldun irekitzen dira, erdikoa balkoia izanik.
- San Frantzisko iturrira ematen duen fatxadako hiru solairuetan bina baogune dinteldun zabalitzen dira.
- Azoka Plazara ematen duen fatxada ate batez eta bi leiho arku karpanalez apainduta dago. Lehenengo eta bigarren solairuetan erdi puntuko bi arku bizki ikus daitezke, batzuek zahar itxura dute, beste batzuek berrituak dirudite eta guztiak harlanduz eta harri leunduz eginak daude. Hirugarren solairuan hiru balkoi dinteldu aurkitzen dira.
- Ibai aldera dagoen fatxada guztian orma mazozia da, goikoaldean lau harburu irtetzen direlarik. Orma horretan, arku bat eta dintel itsutu bat igerri daitezke.

PELLO ARRIETA



Julian Arrillaga

(1911-1993)



- Julian Arrillaga Irusta Elgoibarren jaio zen 1911. urtean.
- Batxiler ikasketak egin zituen Donostiako marianisten eskolan.
- Dentista izan nahi bazuen ere, erizain ikasketak burutu zituen Madrilan.
- 40 urtez edo gehiagoz praktikante izan zen Arnoate Arrillagatarren ospitalean (gaur egungo San Inazio kalean zegoen).
- Sigma enpresan praktikante lanetan aritu zen urte mordo batean.
- Oso ezaguna izan zen edozein ordutan herriko etxeetara joan eta kobratu gabe egiten zuen lanagatik.
- 1978. urteko uztailaren 18an omenaldia egin zitzaion Elgoibarren. Urte horretako egunkariek luze eta zabal hitz egin zuten gizon honi egin zitzaion omenaldiaz.
- Duela 30 bat urte ateratako argazkian Julian Arrillaga, Muguruza etxeko baratze aurrean.
- 1993. eko otsailaren 4an hil zen.

INTERIORES

BARRUEN DEKORAZIORAKO ESTUDIOA

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialak eta etxebizitzak
- Obren zuzendaritza eta gramioen koordinakuntza
- Neurri egindako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR ☎ 74 40 19 / 55

ZALDUA ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

GRANDALÓ

O I H A L A

eta

MERZERIA

Errosario 8. Tel: 74 35 95

MOTZAK

Ibai gimnasioko judokak Frantzian

Ibai gimnasioko Egoitz Mora, Gorka Garate, Zipri Migales, Zuhaitz Azpiazu, Aitor Mugerza, Xabi Gonzalez eta Ganix Ostolaza judoka gazteek Frantziako Mont de Marsan herrian izandako Nazioarteko Judo txapelketan parte hartu zuten Gipuzkoako beste klub batzuekin batera. Eibar, Deba, Ondarru, Arrasate, Azpeitia, Errenderi, Tolosa, Ermua eta Donostiako judo taldeek bat egin zuten eta Hondartza klubaren izenpean lehiatu zuten alebin, benjamin, infantil, kadete, junior eta senior mailetan. Jardunaldi luze bezain gogor baten ostean, maila guztietan puntuak lortu zituztenez, taldekako lehen postua lortu zuten Hondartza taldeko ordezkariak.

Gipuzkoako Bolo finala San Migelen

Herri ezberdinetan sei bolo saio burutu ondoren, Gipuzkoako XXV. Bolo Txapelketaren finala jokatu da larunbatean, hilak 14, San Migelen arratsaldeko 5etatik aurrera. Finala benetan emozionantea izango dela aurreikusten da, saiklatutako lehen hiru taldeek 3 txirlotako diferentzia bakarrik baitute. Hiru Hautagai hauen artean aterako da Gipuzkoako txapelduna. Elgoibartarrak bigarren postuan daude eta beraz, iaz lortutako txapela berreskuratzeko aukerarik badute.



Roberto Sanchez:

"Trial-Sinean trebetasuna eta morala behar dira"

■ **Zer da Trial-Sin?** - Bizikletan ibiltzeko era bat. Ahalik eta denbora gehienez bizikleta gainean egotea da, gustuko mugimenduak eginez.

■ **Zer nolako mugimenduak dira?** - Batez ere, saltoak. Asko egiten dugun mugimendua konpasa deitzen dena da. Manilarrari buelta ematen zaio norberari begira jarriz, gorputza izkina batera botatzen da, hanka bat kuadroan jartzen da eta beste erroberaren gainean. Hankarekin bizikletari bueltak ematen zaizkio konpasaren mugimendua balitz bezala.

■ **Eta zaila al da?** - Bai, nahiko. Asko ikasi behar da.

■ **Zu noiz hasi zinen praktikatzen?** - Orain dela bost edo sei urte. Oraindik ez dut den dena menperatzen, beti ateratzen da zerbait berria. 1000tik gora truko daude, konbinazioak milaka izan daitezke.

■ **Sekreturik?** - Orduak sartzea.

■ **Egunean zenbat sartzen dituzu zuk?** - Astebukaeretan ibiltzen naiz. Goizeko 10etan irten eta eguerdira arte ez naiz etxera bueltatzen.

■ **Trial-Sineko bizikletak bereziak izango dira, ez?**

- Bai. Mota ezberdinak daude: BMX, Trial-Sin eta Free-Style. Guk gehienbat Free-Style egiten dugu, konpletuena da. Trail-Sinak kuadro baxua dauka eta luzeagoa da eta Free-Style



lek erdiko neurrikoa dauka.

■ **Zirkuituren bat ba al dago?**

- Trial-Sin egiteko koskak dauden tokia behar da. BMX sinpleagoa da, saltoak eta bueltak ematea da. Free-Style, kalean bertan egin dezakezu eta U batean ere bai.

■ **Zuek non ibiltzen zarete?**

- Kalean. Jendea haserretu egiten da, txoruak bezala ibiltzen geralako. Batzuetan Plaza handian egoten gera, beste batzuetan Institutu berrian.

■ **Zein da beharrezko ezaugarria?** - Trebetasuna. Morala ere bai. Haseran ez bazaizu ateratzen berriro ahalegindu behar zara. Oreka ere behar da baina ez hainbeste. Garrantzitsuena gogoia edukitzea da.

■ **Inoiz kompetizioan ibili al zara?**

- Ez gera inoiz atrebitu. Profesionalekin konpetitza oso zaila da. Profesionalak taldeetan daude. Gu, normalean hiru ibiltzen gera: Aitor Etxaniz,

Jose Angel Garrido eta ni. Ez dugu talderik eta Udaletxeari lokal bat eskatu genion gauzak hobeto egiteko baina... Afizionatu mailan ez dakit konpetiziorik dagoen. Guk antolatuko genuke zerbait baina arazoa dirua da.

- Adina: 17
- Beste kirolik: Bizikleta bakarrik.
- Ikusi duzun azken pelikula? Estrellas USA.
- Gogokoena? El Ultimo Emperador.

Maria Urizar

ileapaindegi
mixtoa

Errosario 9-1ezk.

☎ 74 44 89 ELGOIBAR



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

Jose Gurrutxaga, adinik gabeko korrikalaria

Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatuta, Euskadiko Beteranoen Atletismo Txapelketa jokatu zen joan den igandean Mintxetako pistetan. Euskadiko txapelketa hau bi tandatan banatuko dute. Lehena Elgoibarren burututakoa izan da, eta bigarrena, asteburu honetan jokatuko da Ordizian.

Euskadiko beteranoen txapelketa hau Gipuzkoako Txapelketa ere izan da aldi berean. Partaidetza ez da normalean jendetsua izaten, horregatik, 40 urteko eta 70 urteko korrikalariak batera lehiatu behar izaten dute. Beste edozein lasterketatan ez bezala, txapelketa honek bazuen zerbait berezia: garrantzitsuena ez dela albokoa gainditzea, nork bere burua gainditzea baizik.

Eguraldi ezin hobea lagun izan zuten korrikalariak txapelketak iraun zuen bitartean. Goizeko 10etan hasi ziren lehendabiziko frogak, eta 12ak aldera bukatu ziren azkenak. Denera sei froga ezberdin burutu ziren, Jose Gurrutxaga, 72 urteko beterano



■ ■ Jose Gurrutxaga.

elgoibartarra, Euskadiko eta Gipuzkoako txapeldun izan zelarik bere mailan. Gurrutxagak 100 metro-tako bigarren seriean korritu zuen, adinez bera baino askoz gazteagoak ziren korrikalariak batera. Jose Gurrutxagak 15"02ko denbora egin zuen, "oso pozik" geratu zelarik lortutako emaitzarekin. Izan ere, Josek Akiles taloia minduta zeukan eta, arrazoi horregatik 100 metro-tako lasterketa bakarrik korritzea erabaki zuen, 400 metroak beste batean korrituko dituela adieraziz.



■ ■ Kirolak adinik ez duela erakutsi zuten beteranoek.

LASTERKETAK ETA EMAITZAK

(eskuzko denborak)

- 100 METRO (giz.): Antxon Basurko (11"8)
 - 100 METRO (emak.): Ana Rincon (14"30)
 - 1.500 METRO (giz.): Serafin Garcia (4'14"30)
 - 1.500 METRO (emak.): Amelia Sanchez (5'38"80)
 - 400 METRO (giz.): Jose Luis Romero (56"80)
 - 400 METRO (emak.): Maria Luis Perez (1'39"10)
 - 5.000 METRO (giz.): Serafin Garcia (16'37"0)
 - 5000 METRO (emak.): Camila Bravo (20'00"30)
 - 4X100 METRO:
- Gipuzkoa A (Leunda, Caballero, Roca, Basurko) 47"50
- LUZERA JAUZIA (giz.): Antxon Basurko (5,18m)
 - LUZERA JAUZIA (emak.): Ana Rincon (4,80m)
 - TRIPLE SALTOA (giz.): Rafael Caballero (12,47m)

A G E N D A

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 14

- 16,30: C. D. Elgoibar - Ordizia (Jubenilak)
- 18,15: Urki - Antzuola (2. errejionala)

Igandea 15

- 10,00: S. D. Eibar - Bergara (Jubenilak)
- 12,00: C. D. Elgoibar - Aitzgorri (Kadeteak)

ATLETISMOA Mintxetan Larunbata 14

- 10,00: Eskolarteko atletismo lasterketak (Ikastola)

FUTBITOA Urasandin Igandea 15 (Finalerdiak)

- 11,00: Univ. Chile - Pedrusco Sporting - Hunde Verboten
- 12,00: Ametsa - Mimox Arroak - Karkis

E M A I T Z A K

ESKUBALOIA

- Bergara 15 - Elgoibar 15 (Kadeteak)
- Urola 19 - Elgoibar 25 (Jubenilak)
- Usurbil 24 - Elgoibar 14 (Neskak)

FUTBOLA

- Lagun Onak 1 - Elgoibar 2 (2. errejionala)
- Elgoibar 1 - Ordizia 1 (Jubenilak)
- Eibar 2 - Elgoibar 5 (Kadeteak)
- Elgoibar 0 - Almen 0 (Infantilak)
- Elgoibar 2 - Antoniano 3 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

- Elgoibar 2 - Nere Sport 3 (2. maila)



Mintxetako muskulazio gela inauguratu berri dute aste honetan. Ekitaldian Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea, Guillermo Garate Kultur zinegotzia eta Kirol teknikaria den Ramon Mujika izan ziren. Kirola guztiontzat filosofiapean, Udalak azpiegitura egokiak jarritz lagundu behar duela aiderazi zuen Guillermo Garatek. Alkateak, berriz, Mintxetako kirol instalakuntzak izandako arrakasta azpimarratu zuen, batez ere, hain polemikoa izan den zelai artifizialarena. Aipatu muskulazio gelaren arduraduna Argiñe Gabilondo izango da, eta pertsona bakoitzari segimendu berezia egingo zaio. Lehen astean sarrera dohainikoa izango da jendeak aproba egin dezan.

Aitor Garitagoitia, bigarren tiro saioko buru

Joan den larunbatean San Pedroko tiro zelaian izandako bigarren tiro saioko irabazlea Aitor Garitagoitia izan zen 24/25 platerekin. *La Union* elkarteak antolatutako erregulartasun tiro txapelketa honen azken saioa sapatu honetan, hilak 14 izango da. Dagokion hirugarren saioaz gain, sailkapen orokorraren sari banaketa egingo da egun horretan. Txapelketa, arratsaldeko 3etan hasiko da.

Elgoibarko atletismoak errelebu beharra dauka

Ego-Tokiko Atletismo klubaren arduradunek errelebu behar dutela adierazi zuten joan den asteartean, hilak 10, Kultur Etxean egindako bileran. Herriko atletismoak jende berriaren beharra duela argi geratu zen bileran baina, ikastetxeetako gurasorik apenas joan zenez, beste bilera baterako deia zabaldu da bi aste barrurako.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak

Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Iguatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guzti hau
Eibarren bertan
urrutirago joan
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

Heziketa, gazteak trebatzeko oinarria

Hodei Aisialdirako taldea, trebetasun sozialen programa bat burutzen ari da apirilean hasita, maiatzaren 26ra arte. Gazteen aisialdirako programa alternatibo izateko asmoarekin antolatu ditu Hodeik kultur Etxean burutzen ari diren saio hauek. Loredi Salegik, Hodei taldeko arduradunak, trebetasun sozialen programa hau zertarako burutzen ari diren azaldu digu.



■ ■ **Gazteek orientazio beharra dute Hodeiko kideen ustez.**

Dagoeneko 5 saio egin dituzte eta asmoa hilabete terdian zazpi saio burutzea da. Astean behin biltzen dira Kultur Etxean, arratsaldeko 7etatik 9,30etara. Partaidezari dagokionean, haseran egindako prebisioak bete egin direla esan digu Loredi Salegik. “Batazbeste 10-20 gazteko taldea osatzea pentsatuta geneukan eta erantzuna nahiko ona izan da, 18 gazteko taldea biltzen gara 16 eta 23 urte bitartekoak”. Partaideen artean, herriko talde ezberdin askotako kideak daudela adierazi digu Hodeiko arduradunak.

Gazteak hezi

Programa honen helburu nagusia, gazteari gizarteko edozein egoeratan ganoraz moldatzeko ahalmena eta baliabideak eskaintzea da. Familian, lagunartean, bikoteko harremanetan,...

edozein testuingurutan sortzen diren arazoei erantzun egokia ematen jakin dezan irakatsi nahi zaio gazteari. Lorediren ustez, “zenbait arazoren aurrean hartzen

Trebetasun sozialen programa honen barruan, hainbat gai jorratu dituzte: autoestima, komunikazioa, sexualitatea...

diren jarrerak edota erabiltzen diren moduak ez dira egokienak izaten, horregatik espresatzen irakatsi behar zaie gazteei”. Bost saio hauen balorazioa, “oso ona” da Hodeiko arduradunaren ustez, “jendea gustura dago eta agian,

maiatzaren 26ko azken saioa eta gero, hilero bil gaitzke”.

Trebetasun sozialen programa honen barruan, hainbat gai jorratu dituzte: autoestima, komunikazioa, sexualitatea... Loredik adierazi digun bezala, sexualitatea izan da gairik eztabaidatuena. Aipatu, norbaitek proposamenik baleuka, azken saioetan partehartzeko aukera izango duela.

Duela lau edo bost urte jaio zen Hodei taldea eta helburua gazteen arazoei aurre egitea izan da beti. Ikasketaren bidez edozein arazori irtenbidea topa dakioken usteaz, gazteen aisialdirako atalean, Hodeik, talde alternatiboa izaten jarraituko duela azaldu du Loredi Salegik. “Orandik ez dugu gauza berririk antolatzea pentsatu, lekuan lekuko beharrei erantzuten ahaleginduko gara”.

BATZOKIA

**JATETXEA
ETA
TABERNA**

P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

GARAY



**HARATEGIA
URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

Iparraldearen orena

Urtero bezela, apirilaren 29an UBIko ikasleok iparralderantz abiatu ginen. Zerua urdin eta begietako makarrak oraindik gurekin genituelarik, autobusean sartu ginen goizeko zortzietan. Bide luzea iragan ondoren, eta nahiz eta batzuen karnetak etxean geratu, Espainiar Administrazioaren muga arazorik gabe pasa genuen.



■ ■ Ainhoa herriko erretorea Elgoibarko Institutuko UBIko Ainhoekin.

Iparraldean jada, eguneroko giroaren aldaketa nabari genuen. Liliput-en aurkitzen ginen, guztia dimentsioz aldatu zen. Mendiak txiki eta garbitasun seinale ziren zakarrontzi ikaragarriak, etxe familiarrak eta isiltasunaren testigu ziren karrika bakartiak.

Lehenengo geldiuena Larrun mendiaren oinean egin genuen, eguzkiak gogoz jotzen zuen bertan. Mendi tontorreraino eramango gintuen trenean sartu eta paisaiatz gozatzen eseri ginen. Gailurretik arranoen gisa, Pirinioetako mendi elurtuak eta kostaldeko herrixkak ikusi ahal izan genituen. Hurrengo geldiuena Saran izan zen eta bertan eliza ikusi ahal izan genuen, lapurtar estiloko ezaugarri gorenetakoa.

Ainhoarantza joan ginen ondoren, bertan Roger Idiart herriko erretore eta idazle denarekin jardun bat izan genuen bere kantu eta istorioak entzun ondoren.

Bertako euskararen egoerari buruz galdegin genionean, "itotzera doan gizaki batek egiten duen azken ahaleginaren antzekoa" dela esan zigun. Badirudi, beraz, euskararen egoera tamalgariaren kontzientzia zabaldu dela inguruan. Esandakoa-ren adibide da Estatu frantsesean eginiko azken inkestaren arabera, biztanlegoaren %70a inguru, hizkuntza minorizatueri laguntzeko prest agertzen dela. Elkarrizketan

ari ginela, zentralismo farntsesaren gaia ere aipatu zigun, "Frantzian, euskararekiko diktadura izkutu baten bidez, euskal giroaren zabal-kundea eragozten ari dira".

Donibane Garazin bazkaldu ondoren, Isturitz eta Otszelaiako kobak bisitatu genituen. Arkeologiari buruzko datuak entzuten genituen bitartean, gure arbasoak bizi izan ziren lekuko zolua zapaltzen ari ginen. Gidak, mitologia herrikoia- ren berri ere eman zigun.

Hurrengo geldiuenean zibilizazio esplotatura itzuli ginen eta gure egunpasari amaiera emateko Donibane Lohitzuneko bazterrak ikusi genituen.

Hain gertu dagoen eta hain ezezagun egiten zaigun herriaren parte diren lurak utzita itzuli ginen.

UBI KO IKASLEAK

**Xoriaren xaramelak
eztitzen du bihotza,
bainan goizegi da ixildu
gaur Eztitxuren botza...
Orain, zuk jauna, zabal ezazu
gain hartako egoitza,
xori horrek dezala goza
betiereko poza.**

BIDE GAIN
Ondo pasa jaiak
TABERNA
Urasandi - 1 blokea, 15 ☎ 74 32 95

ecenarro
Barruko erropak
Umeentzako erropak
San Frantzisko 10,
Tel.: 74 26 19

UDA BERRI
ELGOIBAR

14 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Programazioa eta ekintzak
✓ Kultur Etxean.

15,00 TIRO TXAPELKETA

✓ San Pedroko tiro zelaian.

17,00 GIPIZKOAKO XXV.
BOLO TXAPELKETA

✓ San Migeleko bolatokian.

15 IGANDEA

9,00 PAGOETARA IRTEERA

✓ Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

17 ASTEARTEA

19,30 HITZALDIA

Gaia: "Diseinuko drogak eta 'ruta del bacalao' "

Hizlaria: Agustin Larrazabal (pskiatra).

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo.

18 ASTEAZKENA

19,00 GAZTEEN TREBATZE
SOZIALERAKO PROGRAMA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Hodei.

19 OSTEGUNA

19,30 HITZALDIA

Gaia: "Drogen legalizazioa: bai ala ez?"

Hizlaria: Txus Congil (Askagintzakoa)

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Errotatxo.

txandak

FARMAZIAK:

14, larunbata Yudego

15, igandea: Yudego

16, astelehena: Bidasolo

17, asteartea: Bidasolo

18, asteazkena: Bidasolo

19, osteguna: Bidasolo

20, ostirala: Bidasolo

OKINDEGIA:

15, igandea: EIZAGIRRE

DIA DAS LETRAS GALEGAS 1994

14 LARUNBATA

14,00: Bazkideen anaiarteko bazkaria.

16,00: Chaves joko lehiaketa Galizia Plazan.

15 IGANDEA

10,00: Galizia Kultur Etxeko ezkondu eta ezkongabeen arteko futbito partidua.

15,30: Diapositiba eta bideo emanaldiak

Gaia: Galizia.

20 OSTIRALA

19,00: Txaffligu bidez Luis Seoaneren ohorez jaien hasiera.

Jarraian, "Amorocha" Carballino-ko Gorengo Pulpeirak eskeinita olagarroaren dastaketa.

22,30: "Marsella" Orkestaren eskutik berbena.



Mutua General de Seguros



ZURE SEMEAK
ETORKIZUN HANDI
BAT DAUKA

GUK ASEGURATU
EGINGO DIZUGU.

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?

Landu ezazu!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

KANTU IRAKASLEA

DEITU ☎ 74 15 56 - 11 03 51

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

SUPER LEHIAKETA


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

*Gogoratu bezera izateagatik saria **BIKOIZTU** daitekela. Informa zaituz!*

San Inazio, 1 • ELGOIBAR • Tel. 74 06 54

2. GALDERA SORTAKO IRABAZLEA
MARI JOSE ESTIBARIZ IZAN DA.
Autonomo kuota Caja laborean ordaintzeagatik **50.000 pta**ko saria jaso du Mari Josek.
Zorionak!!!

S A R I A K

- Astero **25.000 pta**ko gutxieneko saria. Kartilaren jabeak nomina, pentsioa edo autonomo erreziboa bertatik jasoz gero saria **BIKOIZTU** egingo da (**50.000 pta.**)
- Azken saria **100.000 pta**koa izango da gutxienez. Nomina, autonomo erreziboa edo pentsioa bertatik jasotzen duenak nominaren kantitate berbera jasoko du, **200.000 pta** gehienez.

Hau da zuen arkenengo aukera !!

3. GALDERA SORTA

1. Norena da "Esku leuna" izenburua duen liburua?
A. Gotzon Garate
B. Alberto Agirreazaldegia
C. Hasier Etxeberria
2. Hauetatik zein da Elgoibarko elkarterik zaharrena?
A. G.A. Ego-Toki
B. S. M. Biar Dana
C. S. C. Gure Bide
3. Iazko San Bartolome egunean jokatu zen pilota partidu estelarra...
A. Unanue - Errastik irabazi zuen.
B. Urionaguena - Galarzak irabazi zuen.
C. Unanue - Aldazabal II.ak irabazi zuen.
4. Zein da Ehun Kilo taldearen diskoaren izena?
A. Gaueko isilean
B. Ehun Kilo
C. Euli artean
5. Zein urtetan bota zen Merkatu Plaza zaharra?
A. 1959an
B. 1969an
C. 1979an

3. GALDERA SORTAKO erantzunak eta **FINALERAKO KARTOIA** maiatzaren 18a baino lehen utzi beharko dituzu Caja Laboral-Euskadiko Kutxan.

Elgoibar ezagutzeko giltza



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ERAKUTSI

Seat Cordoba da. Diseinu berria. Probokatzailera bere prestakuntzetan.
Bikaina seguritatean. Ekipamenduan. Ezingo duzu aguantatu.
Erakutsi.



TEKNOLOGIA ALEMANA

**EGIN EZAZU
APROBA ETA
JAKINGO DUZU
ZERGATIK**



SEAT
Bai!

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 - Tel. 11 36 42 - EIBAR